

Koldo Otamendi, *Kojo*

MUSIKAREN ERREPIDEAN



NIRETZAT, MUSIKAK FUNTZIONATU BEHAR DU ARGIAK ITZALITA



Ez dut uste musikaririk egonen denik Euskal Herrian Koldo Otamendi, *Kojo* ezagutzen ez duenik. Are gehiago, ez dakit musikaririk egonen ote den Otamendik elkarrizketatu ez duenik.

Jotzen izan ezik, musikaren bueltako beste edozertan topa dezakezu andoaindarra Euskal Herriko edozein puntatan, baina beti egiten du buelta etxera, bere eskola izan den horretara: Andoaingo gaztetxera.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  DANIEL BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Duela urtebete-edo proposatu nizun elkarrizketa hau eta ezezkoa eman zenidan. Duela aste batzuk jaso nuen zure mezua, “orain bai” esanez.

Ez zait asko gustatzen pertsonaia gisa azaltzea. Ni Musika Zuzenean izeneko kolektibo batean nago, nirea da aurpegi ezaguna, baina askotan ni naiz hitz egi-tera joaten dena beste inork ez duelako nahi, asumitua dut dagoeneko paper hori.

Horrez gain, iaz justu lan handiarenkin harrapatuko ninduzun eta aurtan, kolektiboak 15 urte bete dituela, badut zer kontatu.

Elkarrizketatua ere izan zara, baina, batez ere, elkarrizketatzaile zara. Zer eskatzen diozu elkarrizketatuari eta zer elkarrizketatzaileari?

Hasteko, azaldu nahi nuke ez naizela kazetaria, ez dut kazetaritza ikasi eta ez dut inolako jakintzarik horren inguruan.

Hori esanda, elkarrizketa bat egiteko espazio seguru eta eroso bat behar da, bai elkarrizketatzailearentzat, bai elkarrizketatuarentzat ere. Guk, adibidez, Musika Zuzenean saioan eskatzen dugu talde osoa egon dadila elkarrizketa egi-

tean eta batzuetan badago taldean norbait ez duena hitz egitea maite. Horiakin saiatzen gara galdera batzuk adosten eta haien lokalean egiten, haientzako erosoan izan dadin.

Elkarrizketatu gisa gauza bera: eroso egotea. Uste dut inportantea dela galde-tzen ari denak jakitea zer ari den galde-tzen, zergatik eta zer lortu nahi duen. Oinarri bat behar duzu, baina, aldi berean, azkarra izan behar duzu lerro artean esaten dena harrapatzeko. Maila berean dauden bi pertsonen arteko konbertsazioa behar du izan.



Koldo Otamendi, Kojo

ANDOAIN, 1973



14 urte zituela hasi zen mugitzen musikaren munduan herriko gaztetxearen bueltan, Andoainen. Musikari ez izan arren, ongi ezagutzen du musikaren errepidea, musikazale, kazetari, argazkilari, furgoneta gidari eta *sasimanager* gisa aritu baita. Hamaika Telebistan aritzen da lanean eta Musika Zuzenean izeneko kolektiboko kide da duela hamabost urtetik. Pertsonaletik baino, erosoagoa zaio kolektibotik mintzatzea.

Nekez ezagutuko du inork euskal musika eszena zuk bezala. Zer dakizu besteok ez dakiguna?

Jendeak uste duena baino askoz ere konplikatuagoa da dena. Batetik, gu mugitzen garen eszenan, alternatibo-*underground* horretan badakit kristoren esfortzuak egin behar direla gauzak aurrera ateratzeko. Eta badakit kontzertu baten atzean dagoena ez dela taldearen oholtza gaineko ordu eta erdiko hori, baizik eta entsegu lokaletik atera eta bueltan iristen zareneko tarte hori guztia, ordu piloa.

Inportantea iruditzen zait zaintza-aren kontua, bai musika taldearekin, baita antolatzaileekin ere. Geroz eta garrantzitsuagoa iruditzen zait jakitea nora zoazen jotzera, norekin, nork antolatu duen eta hori dena. Eta geroz eta zaintza gehiago egon, orduan eta konplikatuagoa da antolakuntza. Ikuslea ere banaiz eta batzuetan sarreraren prezioak neurrigabeak iruditzen zaizkit, baina gero kontuak egiten baditut, ez da horrenbeste...

Badaude gauza asko, oso agerikoak iruditzen zaizkigunak batzuetan eta agian ez direnak horren agerikoak.

Eta, kontrara, uste duzu badela uste orokorturen bat ez dena egia?

Mitoren bat?

Sare sozialen agerpenarekin, batzuetan ematen du dena dela arrosa kolorekoa, ezta? Beti izan da izugarria gaua, jende piloa egon da kontzertuetan... Eta hori ez da beti horrela izaten. Erakusten dena da ondo joan zai-zunekoa, inork ez ditu bere porrotak sareetan erakutsi nahi.

Bestetik, musikarien artean laguntasan handia dago, baina inbidiak ere bai. Jende batek ez darama ondo bere taldeak ez funtzionatzea eta beste batzuenek bai. Frustragarria izan daiteke proiektu batean indar guztiak jarri eta arrakasta minimorik ez izatea eta besteren batek ia esfortzurik gabe arrakasta hori lortzea. Musikaren mundua, beste mundu guztiak bezala, ez da justua. Badaude talde eskasak kristoren arrakasta dutenak eta oso talde edo musikari onak oihartzunik lortzen ez dutenak.

Uste duzu inbidia horrek eramaten duela jendea lehiara?

Bai, lehia badago. Marketinak asko egiten du gaur egun: zer egiteko prest zauden, nola saltzen duzun zeure burua... Bizi garen garaian jaialdi batzuek begiratzen dute zenbat jarraitzaile dituzun Instagramen kontratatzeko edo ez. Zure jaialdiari beti egingo dio propaganda gehiago 5.000 jarraitzaile dituenak 500 dituenak baino.

Zuk egon nahi baduzu dirua mugitzen den liga batean, jaialdi horietan jo behar duzu eta horrek eskatzen dizu bi urtean behin diskoa eta sei hilabetea behin single bat ateratzea, hor zaude-la esateko. Bada beldur bat taldeen artean: "Desagertzen banaiz, gero itzultzen naizenean egongo da nire jendea?".

Jende askorendako izan daiteke telebista programa bat, Durangoko Azokako stand bat, agenda bat... Zer da Musika Zuzenean?

Musika Zuzenean sortu genuen webgune bat egin eta Euskal Herrian zeuden kontzertu guztien berri emateko. Konturatu ginen musikaren bueltako egitasmoetan agenda gehigarri bat besterik ez zela izaten, inoiz ez zutabe nagusia. Amets erromantiko batetik sortu genuen: txikian ari direnei bozgorailu bat emateko.

Behin egitura genuela beste gauza batzuekin ere hasi ginen, besteak beste, Durangoko Azokan stand-a jartzen. Guk aste-bururo Euskal Herrian dauden 60-80 kontzertu iragartzen ditugu eta hori ez da icebergaren punta ere.

Hemen daukagun kontzertu dentsitatea ez da leku askotan gertatzen. Aretoak, jaialdiak, tabernak eta gaztetxeak daudelako gertatzen da hori, eta azken horiek egiten dute hori berezi.

Manager gisa ere aritzen zara.

Ni ez naiz manager kontsideratzen. Ni elkarlanean aritzen naiz talde batzuekin, telefonoa hartzen dut, laguntzen ditut... Baina ez dut ez musika bulego bat ez *management* enpresa bat. Nire lana Hamaika Telebistakoa da, Musika Zuzenean kolektibokoa afizioa da eta musika taldeekin noanean elkarlana kontsideratzen dut.



14 urterekin hasi nintzen ni kontzertuak antolatzen Andoaingo gaztetxean eta hala daramat bizi guztia. Gauza asko antolatu izan ditut, baina musika industria ez zait inoiz interesatu. Oso arlo konplikatu da niretzat eta ez zait gustatzen. Nire bizitzan zehar hainbat eskaintza heldu zaizkit musika taldeekin aritzeko, baina beti eman izan dut ezezkoa, Anari etorri zitzaidan arte. Anari eta Anari bandakoak. Bandakoak Andoaingoak dira eta Mikel [Mikel Abrego, Anari taldeko kidea] eta Drake [Xabier Olazabal, Anari taldeko kidea] niretzat izan dira Andoaingo gaztetxean bertan ere irakasle. Belaunaldi horrek irakatsi zigun zer zen autogestioa, asanblada, *zuk zeuk egin* filosofia... Hori da niretzat segitu beharreko lerroa eta musika industria hortik oso aparte dago.

Zertan datza elkarlan hori zehazki?

Anarirekin *road* manager lana egiten dut. Rukula, Gailu eta Inoren ero ni taldeekin ere aritzen naiz, baina beste eskala batean eta denak dira familia berekoak: Andoainetik atera eta Andoainera itzultzen gara. Eta ez dut talde gehiagorekin aritzeko asmorik, ez dut uste manager ona nintzatekeenik. Manager ona izateko zakurra izan behar duzu, eta ni ez naiz oso zakurra horrelako gauzetan [barreak].

Manager askok ez dute kontzertu bat antolatu haien bizitza osoan eta ez dakite zer lan dakarren horrek, uste dute dena alfonbra gorriak izan behar direla euren

taldeentzat. Eta musika talde askok ere ez dute sekula antolatu kontzertu bat eta ejentziekin etortzen dira. Horiei argiki esan behar zaie: "Aizu, hemen beste modu batera antolatzen dira gauzak". Noski, minimo batzuk beti bete behar dira. Nik ikasi dut antolatzaile gisa eduki behar duzula ekipo on bat, propaganda ona eta afari txukun bat. Hortik aurrera, jendea datorren edo ez, ez dago bakarrik zure esku. Eta inportantea iruditzen zait ere talde guztiak berdin tratatzea.

Egia da husten ari dela tradizioz dinamika handia izan duen gaztetxeen zirkuitua?

Euskal Herria musikalki zerbait bada, lehen aipatu bezala, hori da izan dituelako horrelako espazio alternatiboak musika garatzeko ohiko eszenatik edo ohiko mugimendutik at, eta dinamika gehiago edo gutxiagorekin, baina beti egongo dira.

Egia da, baita ere, lehen aipatu dudan horrek, kontzertu asko edukitzearenak, badakarrela arazo bat: ezin dutela denek ondo funtzionatu. Esango nuke orain badela joera bat gutxiago programatzeko eta programatzen den hori dela funtzionatuko duen zerbait. Gutxiago arriskatzten da gauza berriekin.

Kolektibo asko sortu dira gaztetxeen inguruan, proposamen alternatiboagoi leku egiten ari zaizkienak. Segur aski badakite antolatuko dituzten gauza batzuk oso minoritarioak izango direla, baina oso ondo dago egitea, beti ez da aretoa bete behar.

Zein ekarpen egiten dute jaialdi handiek?

Beti egon izan dira. Azken urteetan pasa den fenomeno bat da orain arte euskal musikarentzako erabilgarriak ez ziren guneak erabiltzearena, orain hamar urte ia inork ez zuen ezer antolatzen hor. Eta orain ate hori ireki eta talde batzuei funtzionatu die. Zer aportatzen duen? Ikusgarritasuna ematen du. Askotan aipatzen da gune handietan euskararen presentzia bermatzeak on egiten diola euskarari eta izan daiteke. Euskarak territorioak irabaztea inportantea dela iruditzen zait.

Musikalki zer eskaintzen duten... ba ikuskizunak diren heinean, niri musikazale gisa ez zaizkit interesatzen. Baina hitz egiten dizut orain, 50 urterekin, 20 urte nituenean agian Zeidfest bat kristorena litzateke niretzat.

Makrojaialdiak maite badituzte, ba oso ondo, joan daitezela. Horrek kalterik egiten dion eszena txikiari? Ez dut uste. Hor dagoen publikoa gero ez zaizu inoiz joango zure herriko gaztetxera kontzertu bat ikustera.

Eta formatu handiko horiek existituko ez balira, jende hori txikira joanen litzateke?

Nik uste dut ezetz. Nik 1980ko eta 1990eko hamarkadak bizi izan ditut eta mundua aldatu da. Gaur egun gaztetxeetan jotzen duten taldeek jotzen dute plaza handietan ere eta lehenago hori ez zen horrenbeste gertatzen.

Garai batean gaztetxeak areagotu zirenean Euskal Herrian ez zen modagatik izan, baizik eta gauza alternatiboak egiteko behar bat zegoelako. Gaur egun aisialdia askoz ere zabalagoa da eta agian gune horiek ez dira hain beharrezkoak? Niretzat badira, baina sentitzen dut ez dutela garai batean zeukaten indarra.

Pasatzen ari den beste gauza bat zera da: gaur egun normala da jendeak talde baten kantu batzuk ezagutzea, baina ez taldearen proposamena bere osotasunean. Horretaz aritu nintzen aurrekoan lagun batzuekin: badirudi gazteen artean gorakada izan dutela erromeriek. Zergatik? Gazteei euren gustukoenak diren kantuen zerrenda gau batean entzuteko aukera ematen dielako. Zertarako joan talde baten kontzertu batera, haien bi kantu ezagutzen dituzunean, joan zaitezkeenean erromeria batera eta kantuen %60 jakin? Gauza berriak eza gutzeko interes falta badago, baina tira lehen ere bai.



Zer eskatzen diozu oholta gaineko musikariari ikusle gisa?

Jarrera. Umiltasunetik edo oldarkortasunetik izan daitekeena, baina jarrera. Eta sinets dezala egiten duen horretan. Horretaz aparte, niri espektakulu handiek, pirotekniek eta argi-joko izuga-

rriek ez didate ezer esaten. Eszenatokira igogailu bat igotzearena... Ikusten duzu eta ondo dago, baina nik leku txikiak maite ditut, musikariak eta jendea parez pare dauden horiek. Entzun dadila anplifikadoreen zarata hori. Sentitzen duzuna askoz ere indartsuagoa da, nahiz eta batzuetan soinua onena ez izan.

Zetaken Ilunbeko azken espektakulan pantailari begira egon nintzen ni. Gero telebistan ikusten duzu eta sumatzen duzu telebistan ikusteko egina zegoela eta horrek kentzen dio zuzenekoari magia pixka bat. Lau lagun daudenean agertoki batean izerditan eta jendea gertu dutela... hori baino hoberik ez dago. Niretzat, musikak funtzionatu behar du argiak itzalita.

Musika Zuzeneanen hamabosgarren urteurrena ospatzeko hamabost kontzertu eman dituzue hamabost herri desberdinetan, hamabost egunez jarraian.

Ederrak izan dira. Hamabost leku izan dira, baina beste hamabost izan zitezkeen. Zerrenda bat egin genuen, argi genuen Euskal Herri guztian egon nahi genuela, Xiberutik Arabara. Arantza txiki batzuk geratu zaizkigu: Lizarra edo Zuia ingurura joan ez izanagatik, adibi-

dez, baina denak izan dira ederrak. Oso harrera ona izan dugu.

Nahita atera genuen kartela taldeak iragarri gabe, lekuekin bakarrik. Bira hau ez delako izan taldeen aldeko bira bat, baizik eta lekuen aldekoa, horiek aldarrikatzeko. Egunerokoan musikaren alde ari diren horien aldekoa izan da, hala ulertzen baitugu musika guk ere.

Gehitu nahi zenuke azken hitz bat?

Diru publikoaren benetako funtzioa izan beharko litzateke eszena txikia bultzatzea, talde hasi berriei lagunduz. Eta nola egiten da hori? Entsegu lokalekin. Diru asko joaten da, adibidez, euskal taldeak Finlandian egon daitezen, eta niretzat hori ez da inportantea. Etxepare Institutuak Euskal Herriko musika munduan "zabaltzen" gastatzen duen dirutza entsegu lokaletan jar zezakeen, esate baterako.

Nik oso argi ikusi dut nire musika ibilbidean eta, batez ere, azken urteetan Hammaika Telebistako programarekin: entsegu lokalak dauden herrietan daude musika talde gehiago. Eta hasi berriei dagokienez, nik argi dut adi egon behar dugula gaur egun dagoen horretara: hemendik lau urtera gure talde gogokoena izango dena kontzertuak ematen ari da dagoeneko. ●

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

Abendukoa,
kalean!

Badator
aizu!
eraberritua!



- TESTU GUZTIAK MAILAKATUAK
- HILERO TESTUETAN OINARRITUTAKO 4 ARIKETA ONLINE
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.